

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN SAILA

449/2022 Foru Agindua, abenduaren 30ekoa. Onestea urteko kontuen eredia, zirkularra, jarraibideak eta Arabako Foru Aldundiari bidaltzeko prozedura, kontzejuen, erkidegoen, ermandadeen, partzuergoen eta beste toki erakunde txiki batzuen urteko kontuak aurkezteari dagokionez

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onesten duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak 48.5 artikuluan xedatzen du toki erakundeen eremuan Estatuak une bakoitzean egikaritzen dituen finantza zaintzako ahalmenak Euskadiko erakunde eskudunei dagozkiela.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen bigarren xedapen gehigarriak, euskal foru araubideari buruzkoak, ezartzen du foru aldundiek beren toki erakundeen berezitasun historikoak bermatuko dituztela.

Aurreko hori garatzeko, Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuei buruzko martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauak 40. artikuluan arautzen du Arabako toki erakunde txikien urteko mugimendu ekonomikoa eredu ofizialaren arabera kontu liburu batean jaso beharko dela, eta liburu hori behar bezala izapidetua egon behar dela. Era berean, kontuak egin, onetsi eta Arabako Foru Aldundiari bidaltzeko epeak ezartzen ditu.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, Arabako kontzejuak behartuta daude gainerako administrazio publikoekiko harremanak bitarteko elektronikoen bidez izatera administrazio prozedura bateko edozein izapide egiteko.

Ildo horretan, Arabako Foru Aldundiak berariazko izapide telematiko bat gaitu du "kontzejuen, erkidegoen, ermandadeen, partzuergoen eta beste toki erakunde txiki batzuen urteko kontuak" izeneko prozedura horretarako.

Prozedura horretara Arabako Foru Aldundiaren web orritik sar daiteke, Lurralde Orekaren Sailaren barruan (www.araba.eus), Finantza-babesa / Berariazko formularioa duten izapide elektronikoak atalean, esteka honen bitartez: <https://egoitza.araba.eus/es/-/cuentas-anales-de-concejos-comunidades-hermandades-parzonarias-y-otras-entidades-locales-menores>.

Horregatik, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubidearen abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 40.10 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, dagozkidan ahalmenak baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea urteko kontuen eredia, zirkularra eta jarraibideak, zeinak ebazpen honen I., II. eta III. eranskinetan jaso baitira, hurrenez hurren, kontzejuen, erkidegoen, ermandadeen, partzuergoen eta beste toki erakunde txiki batzuen urteko kontuak aurkezteari dagokionez.

Bigarrena. Onestea "kontzejuen, erkidegoen, ermandadeen, partzuergoen eta beste toki erakunde txiki batzuen urteko kontuak" izeneko prozedura nahitaez erabili beharra. Prozedura hori nahitaezkoa da kontzeju, erkidego, ermandade eta partzuergoen urteko kontuak bidaltzeko.

Prozedura horretara Arabako Foru Aldundiaren web orritik sar daiteke, Lurralde Orekaren Sailaren barruan (www.araba.eus), Finantza-babesa / Berariazko formularioa duten izapide elektronikoak atalean, esteka honen bitartez: <https://egoitza.araba.eus/es/-/cuentas-anales-de-concejos-comunidades-hermandades-parzonarias-y-otras-entidades-locales-menores>.

Hirugarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Foru agindu hau behin betikoa da administrazio bidean, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 30a

Lurralde Orokaren Saileko foru diputatua
IRMA BASTERRA UGARRIZA

Lurralde Orokaren zuzendaria
JESÚS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA



I. ERANSKINA

kontzejua

(_____ - (e)ko udalerria)

Adierazitako kontzejuko

KONTUAK

2022. Urtea

Harremanetarako pertsona:
Harremanetarako telefonoa:
Posta elektronikoa:

.....(e)ko kontzejua

.....(e)ko udalerria

2022. URTEKO KONTUAK

SARRERAK

DATA	KONTZEPTUA	TASAK	TRANSFERENTZIA ETA DIRULAGUNTZA ARRUNTAK	ONDARE SARRERAK	KAPITAL TRANSFERENTZIA ETA DIRULAGUNTZAK	JASOTAKO MAILEGUAK	FINANTZA INBERTSIOAK	BESTELAKOAK
Guztira								

DATA	KONTZEPTUA	TASAK	TRANSFERENTZIA ETA DIRULAGUNTZA ARRUNTAK	ONDARE SARRERAK	KAPITAL TRANSFERENTZIA ETA DIRULAGUNTZAK	JASOTAKO MAILAGUAK	FINANTZA INBERTSIOAK	BESTELAKOAK
	AURREKO ORRIKO GUZTIZKOAK:							
Guztira								

DATA	KONTZEPTUA	TASAK	TRANSFERENTZIA ETA DIRULAGUNTZA ARRUNTAK	ONDARE SARRERAK	KAPITAL TRANSFERENTZIA ETA DIRULAGUNTZAK	JASOTAKO MAILAGUAK	FINANTZA INBERTSIOAK	BESTELAKOAK
	AURREKO ORRIKO GUZTIZKOAK:							
Guztira								

DATA	KONTZEPTUA	TASAK	TRANSFERENTZIA ETA DIRULAGUNTZA ARRUNTAK	ONDARE SARRERAK	KAPITAL TRANSFERENTZIA ETA DIRULAGUNTZAK	JASOTAKO MAILAGUAK	FINANTZA INBERTSIOAK	BESTELAKOAK
	AURREKO ORRIKO GUZTIZKOAK:							
Guztira								

DATA	KONTZEPTUA	TASAK	TRANSFERENTZIA ETA DIRULAGUNTZA ARRUNTAK	ONDARE SARRERAK	KAPITAL TRANSFERENTZIA ETA DIRULAGUNTZAK	JASOTAKO MAILAGUAK	FINANTZA INBERTSIOAK	BESTELAKOAK
	AURREKO ORRIKO GUZTIZKOAK:							
Guztira								

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2023ko urtarrilaren 13a, ostirala • 5 zk.

DATA	KONTZEPTUA	ZERBITZUAK EMATEKO GASTUAK	KUDEAKETA GASTUAK	FINANTZA GASTUAK	INBERTSIOAK	MAILEGUEN AMORTIZAZIOA	FINANTZA INBERTSIOAK	BESTELAKOAK	ZERBITZUA
	AURREKO ORRIKO GUZTIZKOAK:								
Guztira									

DATA	KONTZEPTUA	ZERBITZUAK EMATEKO GASTUAK	KUDEAKETA GASTUAK	FINANTZA GASTUAK	INBERTSIOAK	MAILEGUEN AMORTIZAZIOA	FINANTZA INBERTSIOAK	BESTELAKOAK	ZERBITZUA
	AURREKO ORRIKO GUZTIZKOAK:								
Guztira									

DATA	KONTZEPTUA	ZERBITZUAK EMATEKO GASTUAK	KUDEAKETA GASTUAK	FINANTZA GASTUAK	INBERTSIOAK	MAILEGUEN AMORTIZAZIOA	FINANTZA INBERTSIOAK	BESTELAKOAK	ZERBITZUA
	AURREKO ORRIKO GUZTIZKOAK:								
	Guztira								

DATA	KONTZEPTUA	ZERBITZUAK EMATEKO GASTUAK	KUDEAKETA GASTUAK	FINANTZA GASTUAK	INBERTSIOAK	MAILEGUEN AMORTIZAZIOA	FINANTZA INBERTSIOAK	BESTELAKOAK	ZERBITZUA
	AURREKO ORRIKO GUZTIZKOAK:								
Guztira									

DATA	KONZEPtua	ZERBITZUAK EMATEKO GASTUAK	KUDEAKETA GASTUAK	FINANTZA GASTUAK	INBERTSIOAK	MAILEGUEN AMORTIZAZIOA	FINANTZA INBERTSIOAK	BESTELAKOAK	ZERBITZUA
	AURREKO ORRIKO GUZTIZKOAK:								
Guztira									

KONTUEN LABURPENA

2021/12/31ko hasierako saldoa	_____	S _____
+ Sarreraren guztizko batura	_____	S _____
- Gastuen guztizko batura	_____	G _____
2021/12/31n KUTXAN DAGOENA		*

KUTXAN DAGOENA EGIAZTATZEA

	2021/12/31	2022/12/31
Dirutan dagoena	_____	_____
Zenbaki honetako libretan dagoena	_____	_____
Zenbaki honetako libretan dagoena	_____	_____
Zenbaki honetako libretan dagoena	_____	_____
Zenbaki honetako libretan dagoena <small>Idatzi libretaren zenbakia</small>	_____	_____

GUZTIRA (kutxan dagoen bera)

S _____ *

* Bat etori behar du zenbatekoarekin

KONTZEJUAREN ZORPETZEA

Eman zuen erakundea	Mailegututako zenbatekoa	Emate data	Amortizazio epea	Xedea	2022/12/31n ordaintzeko dagoena

_____ JAUNAK / ANDREAK

KONTZEJU HONETAKO FEDE EMAILEAK

ZIURTATZEN DUT: kontu hauek onartu eta jendaurrean jarri zirela 15 egun baliodunez, kontzeju aretoko dagokion lekuan iragarkia jarri ondoren, eta **(1)** _____ horien aurkako erreklamaziorik. Aurreko zerrendetan jasotako zenbatekoak administrazio batzorde honek dituen ordainagiri eta egiaztatgiriaren kopia zehatza dira.

Eta hala jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, hau egin dut 2023ko.....ren(e)(a)n.

O.E.
LEHENDAKARIA

FEDE EMAILEA

Sinatu

Zigilua jarri

Sinatu

(1) Erreklamaziorik izan bada, jarri: "IZAN DA", eta erantsi haien eta batzordearen dagokion ebazpenaren kopia bana.
Erreklamaziorik izan ez bada, jarri: "EZ DA IZAN"

.....(e)ko KONTZEJUAREN KOSTU EFEKTIBOAK

2022. Urtea

ZERBITZU KODEA	ZERBITZUA	URTEKO KONTUETAKO GASTUA	IBILGETUAREN AMORTIZAZIOA	KOSTUA GUZTIRA	NEURRI UNITATEA	NEURRI UNITATEA GUZTIRA	UNITATEKO KOSTUA
1	Kaleko argiteria				azalera m ²		
2	Hileta eta hileta zerbitzuak				azalera m ²		
3	Bideak garbitzea				azalera m ²		
4	Edateko uraren etkez etxeko homikuntza				m ³ homituak		
5	Estolderia				sarearen m linealak		
6	Bide publikoen zolaketa				azalera m ²		
7	Parke publikoa				azalera m ²		
8	Hondakin uren ebakuzioa eta tratamendua				m ³ araztuak		
9	Erabilera publikoko kirol instalazioak				azalera m ²		
10	Bestelakoak						
	GUZTIRA						

II. ERANSKINA

2022. URTEKO KONTUAK EGITEKO ZIRKULARRA

LEHENENGO PUNTUA:

2022rako Tokiko Kontuen Eredua eskuz osa daiteke (boligrafoz) edo ordenagailu bidez, excel formatuan.

Excel eredu-orria ondoko helbide honetan deskarga daiteke: [Finantza-babesa \(araba.eus\)](http://Finantza-babesa(araba.eus)), "kontzejuen, erkidegoen, ermandadeen, partzuergoen eta beste toki erakunde txiki batzuen urteko kontuak" atalean.

The screenshot shows the website 'araba.eus' with the following content:

- Navigation menu: Udalerrriak, Toki erakundeen finantzaketa, Finantza-babesa, Foru plana eta beste laguntza-programa batzuk, Izapide juridikoak.
- Section: Toki erakundeen finantza babesa
- Text: Atal honetan Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeek finantzaren gaineko babes-ahalmenari buruz eskuragarri dagoen informaziorik berria kontsultatu dezakete.
- Text: Atal honetan argitaratuko dira araudia, dokumentu ereduak eta laguntza manualak buruzko informazioa.
- Search bar: Berariazko formularioa duten izapide elektronikoa
- List of services:
 - > Toki erakundeen aurrekontuak
 - > Toki erakundeen uneko okitaldiko aurrekontu aldaketak
 - > Toki erakundeen aurrekontuen urteko likidazioak
 - > Toki erakundeen urteko kontu orokorrak
 - > Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeek beren aurrekontuko gastuen egoeran jasotako ordainketa kredituak finantzatzeko eskatutako kreditu eragiketei buruzko jasotzea, baimena edo nahitaezko txosten ez-loteslea eskatzea
 - > Finantza jasangarritasunari buruzko txosten eskaera
 - > Toki erakundeko lehendakariaren eta kontuhartzaitza organoaren arteko desadostasunak ebazteari buruzko txostenaren eskaera
 - > Toki erakundeak txosten tekniko-ekonomikoa eskatzea, laguntza eta aholkularitza gisa
 - > **kontzejuen, erkidegoen, ermandadeen, partzuergoen eta beste toki erakunde txiki batzuen urteko kontuak**

Kontu horiek betetzeko lana errazte aldera, eredua posta elektronikoz bidal dakieke nahi duten erakundeei.

Horiek errazago egiteko, Arabako Foru Aldundiak kontuak idazteko dohaineko aholkularitza zerbitzua eskaintzen du, interesaturik dauden administrazio batzarren arduradunekin bisita bat hitzartuta.

Zerbitzu hau erabiltzeko edo horren funtzionamenduari buruzko informazio gehiago eskuratzeko interesa duten administrazio batzarrek bisita hitzartu beharko dute telefono honetara deituta: 945 181818.

Kontuak bete ondoren, 2023ko martxoaren 1a baino lehen onartuko ditu kontzejuak eta jendaurrean jarriko dira, eta horretarako erabili ohi den lekuan dagokion iragarkia jarri ondoren, hamabost baliodun eguneko epean, erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira.

Erreklamazioen bat aurkeztuz gero –idatziz aurkeztu beharko da administrazio batzarreko lehendakariari zuzenduta– kontzejua berriro bilduko da eta horren gaineko ebazpena emango du. Ondoren, erreklamazioen eta horien ebazpenaren kopia bidaliko dizkio foru aldundiari urteko kontuekin batera.

Kontuen izapidetzea, Kontzejuen Foru Arauaren 40. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, 2023ko maiatzaren 1a baino lehen horiek foru aldundira, Lurralde Oreka Zuzendaritzara, bidaltzearekin amaitzen da. Hori bete ezean, Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtseko esleipenaren zenbatekoaren ehuneko 50eko atxikipena egingo da.

BIGARREN PUNTUA: KONTUAK BETETZEKO ARGIBIDEAK:

1.- Kontuen karatulan, beheko eskuinaldean harremanetarako pertsonaren izena eta telefonoa jarriko ditugu (normalean, administrazio batzarreko lehendakaria), sor daitezkeen zalantzak bizkorrago argitzeko.

2.- Sarreraren eta gastuen egoeren orrietan, orri etzan horietara transkribatuko lirateke libretetako oharra, sarreretako edo gastuetako eragiketak beren izaera ekonomikoaren arabera bereizita, haien zenbatekoa dagokion zutabean jasota.

3.- Orri bakoitzaren lehenengo zutabean (dataren zutabea) finantza erakundearen libretan ageri den eragiketaren data erregistratuko da (eguna/hila). Hala ere, aukerakoa da data adieraztea.

4.- Bigarren zutabean (kontzeptua), labur-labur adieraziko da eragiketaren kontzeptua; sarrera edo gastu eragiketaren kontzeptuaren deskribapen laburra egingo da.

5.- Hurrengo zutabeak libretetan ageri den eragiketa bakoitzaren zenbatekoa jartzeko dira, sarrera edo gastuaren izaeraren arabera. Azkeneko zutabea (“bestelakoak”) komodin gisa erabiliko litzateke, hau da, bertan jarriko litzateke eragiketaren zenbatekoa, baldin eta ez badakigu sarrera edo gastu horren izaera aurreko zutabeetan jasotako kontzepturen batekin bat datorren ala ez. Hala ere, zutabe bakoitzean zein kontzeptu ekonomiko sartuko liratekeen argitzeko orri orientagarri bat erantsi dugu.

6.- Kontuen azken orrian (“kontuen laburpena”), honakoak jasoko dira:

a) Libreten 2021eko abenduaren 31ko hasierako saldoen batura.

b) Sarreraren guztizko batura (sarreraren orrietako zutabe guztietan jasotako zenbateko guztien batura). 2022ko sarrerak, 2022ko urtarrilaren 1ean zegoen diruzaintza kontatu gabe, zenbateko hori aurreko a) atalekoa baita.

c) Gastuen guztizko batura (gastuen orrietako zutabe guztietan jasotako zenbateko guztien batura).

Behean, “kutxan dagoena egiaztatzea” jartzen duen lekuan, kontu bakoitzaren hasierako eta amaierako saldoak zehaztuko dira berriz ere, bereizita. Horrez gain, kontu edo libreta bakoitzaren zenbaki osoa idatziko da.

Horrez gain, kontuen azken orri horretan, “kutxan dagoena egiaztatzea” atalaren azpian, “kontzejuaren zorpetzea” atala gehitu da; bertan jasoko dira, lerro bakoitzean, 2022ko abenduaren 31n indarrean dauden mailegu eragiketetakako bakoitzaren datuak (foru lerroak eta maileguak).

Azkenik, derrigorrean bete behar da azken orriaren bukaerako zatia (laburpen orria), non argi eta garbi adieraziko den erreklamaziorik egon den ala ez, data eta lehendakariaren eta idazkariaren sinadurarekin batera.

HIRUGARREN PUNTUA: ATXIKITAKO ZENBATEKOAK KONTUETAN ISLATZEA:

Lurralde Orekaren Zuzendaritzak, kontzejuen kontuak aztertzerakoan, ikusi du Toki Erakundeak Finantzatzeako Foru Funtsetik (TEFFF) jasotzen dituzten zenbatekoak sarreretan sartu direla, egin dituzten baina aipaturiko TEFFFetik konpentsatu zaizkien gastuak gastuetan jaso gabe.

Zehazki, eta zuzendaritza honi eragiten dionari dagokionez, diru kopuruak atxikitu zaizkio aseguru primengatik (aldundi honek kontzejuen alde hitzartutako sisteman sartuta egonez gero) edo TEFFFen likidazio negatiboagatik.

Nola islatu behar dira atxikipen horiek kontuetan? Sarrereren egoeran kontabilizatuko da kontzejuari dagokion TEFFFaren guztizko zenbatekoa eta, aldi berean, gastuen egoeran islatuko dira aurrezki libretetan mugimendurik izan ez duten arren harentzako gastua edo gastuak eragin dituzten zenbatekoak.

Orientatzeko, hona hemen azaldutakoa erakusten duen adibide bat.

X kontzejuak 1.803,04 euroko TEFFF sarrera badu, baina aurrezki libretan 1.354,28 euro bakarrik jaso baditu aurreko ekitaldiko TEFFFen likidazio negatiboaren 300,51 euro eta Aldundiak hitzartutako aseguruarengatik 150,25 euro atxiki zaizkiolako, aipaturiko kontzejuak 1.803,04 euro jarriko ditu sarreretan, eta likidazio negatiboaren 300,51 euro eta aldundiak itundutako aseguruarengatik 150,25 euro gastuetan.

SARRERAK	ZENBATEKOA	GASTUAK	ZENBATEKOA
TEFFF	1.803,04 €	Aurreko ekitaldiko likidazio negatiboa	300,51 €
		Aldundiaren aseguru	150,25 €

Horrela, libretan 1.352,28 euroko zenbateko garbia bakarrik ikusi arren, honela kontabilizatuko da zenbateko hori:

Sarrereren orrian 1.803,04 euroko zenbatekoa erregistratuko litzateke.

Gastuen orrian 300,51 eta 150,25 euroko zenbatekoak erregistratuko lirateke.

LAUGARREN PUNTUA: FINANTZA INBERTSIOAK ISLATZEA (ALTXORRAREN LETRAK, EPEKAKO GORDAILLUAK, INBERTSIO FONDOAK, ETAB.)

Zutabe horren helburua da finantza inbertsioak direla-eta egin diren diru itsuldaketen zenbatekoak zutabe horretan jasotzea. Hau da, kontzeju batek diru kopuru bat bere libretatik ateratzen badu errentagarritasun handiagoko inbertsio fondo edo gordailuetan sartzeko, intsuldaketa hori gastuen orriko finantza inbertsioen zutabearen islatzen da. Gero, dirua berreskuratzean, libretako sarrera hori sarrereren orriko finantza inbertsioen zutabearen islatuko da.

Hauxe da arrazoia: kontzeju bakoitzari deskontatzen zaion aseguru primaren kalkulan garrantzi handia du kontzeju bakoitzak egindako gastuaren zenbatekoak; gastu horrek erreala izan behar du, ez finantzarioa. Era horretan, adibidez, kontzeju batek libretan milioi bat euro baditu eta altxorraren letretan edo beste fondo mota batean inbertitzea erabakitzen badu errentagarritasuna ateratzeko, libretako diru irteera hori gastu gisa erregistratzen da, baina, berez, gastu hori ez da erreala, diruzaintzako mugimendu bat baizik, eta ez da kontuan hartu behar aseguru prima kalkulatzeko. Horregatik, garrantzitsua da gastu hori gastuen orriko finantza inbertsioen zutabearen erregistratzea, aseguru primak kalkulatzekoan zenbateko hori kontuan ez hartzeko.

Aurrez azaldutakoa zure erakundearen kontuak prestatzeko lagungarri izatea espero dugu.

III. ERANSKINA**SARREREN ETA GASTUEN ORRIETAKO ZUTABEETAN SARTU BEHARREKO
KONTZEPTUEN LABURPEN ORIENTAGARRIA; ERAGIKETA BAKOITZAREN
ZENBATEKOAK ERREGISTRATZEN DIRA ORRI HORIETAN****1.- SARREREN SAILKAPENA.**

A) "Bestelakoak" zutabea: zutabe hau azkena jarrita dagoen arren, hemendik ekingo diogu azalpenari, hau izango baita komodin gisa balio izango digun zenbatekoen zutabea. Beren jatorria edo izaera dela eta aurreko zutabeetako kontzeptuek barne hartzen ez dituzten sarrerak "bestelakoak" zutabeen adieraziko dira. Beraz, bertan erregistratuko dira sarrera eragiketen zenbatekoak aurreko zutabeetako kontzeptuekin bat ez datozenean edo haien zenbatekoa non jarri ez dakigunean.

B) "Tasak" zutabea: lehenengo zutabe honetan biltzen dira kontzejuak eginiko zerbitzuen prestazioaren ondoriozko sarrerak:

- Uraren tasak.
- Hilerriko tasak.
- Kontribuzio bereziak.
- Isunak.
- Kontzejuak ematen dituen zerbitzuen ondoriozko bestelako sarrerak.

C) "Transferentzia eta dirulaguntza arruntak" zutabea: erakunde publikoetatik datozen sarrerak, gastu arrunta finantzatzeko, dirulaguntza bidez, kontrapartidarik gabe, eta obra edo inbertsioetarako erabiltzen ez direnak. Era honetako sarrerak, adibidez:

- Arabako Foru Aldundia (AFA)TEFFF 1. Seihilekoa.
- Arabako Foru Aldundia (AFA)TEFFF 2. Seihilekoa.
- Aurreko urteko TEFFF likidazioa. TEFFF aseguruaren erregularizazioa
- Bestelako dirulaguntza arruntak (ekitaldi bakoitzean errepikatzen direnak).

D) "Ondare sarrerak" zutabea: kontzejuaren ondarearen errentetatik lortzen diren sarrerak biltzen dira:

- Bankuko kontuen interesak.
- Finka eta higiezin errentak.
- Larreak, barrutiak, egurretarakoak, errentamenduak.
- Bidezidorrengatik auzo ekarpenak, etab.

E) "Kapital transferentzia eta dirulaguntzak" zutabea: obra eta inbertsioak finantzatzeko erakundeetatik jasotako sarrerak biltzen dira:

- Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren dirulaguntzak.
- Obretarako udalaren dirulaguntzak, Eusko Jaurlaritzarenak, etab.
- Obretarako edo ibilgetua erosteko bestelako dirulaguntzak.

F) "Jasotako maileguak" zutabea: zutabe honetan biltzen dira kreditu eragiketa, mailegu edo foru lerro bat hitzartzeagatik jasotako sarrerak.

G) "Finantza inbertsioak" zutabea: zutabe honetan biltzen da bankuko libretara itzultzen den dirua edo inbertsio fondoak (altxorraren letrak, gordailuak, inbertsio fondoak, etab.) berrerostearen bidez libretara transferitzen den dirua.

2.- GASTUEN SAILKAPENA:

A) "Bestelakoak" zutabea: sarrerei dagokien zutabeen azaldutakoaren antzera, zenbatekoen zutabe honek komodin gisa balioko digu. Beren jatorria edo izaera dela eta aurreko zutabeetako kontzeptuek barne hartzen ez dituzten gastuak "bestelakoak" zutabeen adieraziko dira. Beraz, bertan erregistratuko dira gastu eragiketen zenbatekoak aurreko zutabeetako kontzeptuekin bat ez datozenean edo haien zenbatekoa non jarri ez dakigunean.

B) "Zerbitzuak emateagatik gastuak" zutabea: kontzejua behar bezala kudeatzeko beharrezkoak diren gastu arruntak bilduko dira:

- Ura.
- Argiztapen publikoa.
- Aldizkarietako iragarkiak.
- Erregaiak.
- Jaiak.
- Zergak.
- Garbiketa.
- Bulegoko materiala.
- Konponketak eta zainketa.
- Hornidurak (telefonoa, etab.).
- Askotariko gastu arruntak (aseguruak, etab.).

C) "Kudeaketa gastuak" zutabea: era guztietako ordainsariak eta ordezkariak gastuak: dietak, ordainsariak, otorduak, etab.

D) "Finantza gastuak" zutabea: maileguen interesen, bankuko komisioen eta gainerako bankuko gastuen eta gastu finantzarioen ondoriozko gastuak bilduko dira.

E) "Inbertsioak" zutabea: azpiegiturak sortzera eta zerbitzuen funtzionamendurako beharrezkoak diren higiezin eta higigarriak edo ondarea erostera bideratutako gastuak bilduko dira:

- Obrak (hornidura, saneamendua, urbanizazioak, etab.).
- Higigarriak, makinak, etab. eskuratzea.
- Konponketa handiak.
- Urtebete baino gehiago irauten duten higigarriak, ekipo informatikoak, inbertsio ondasunak.

F) "Maileguen amortizazioa" zutabea: maileguak, kredituak eta foru lerroak ezeztatze ordaintzen diren zenbatekoak biltzen ditu. Amortizazioak.

G) "Finantza inbertsioak" zutabea: zutabe honetan biltzen da bankuko libretatik ateratzen den dirua edo inbertsio fondoak (altxorraren letrak, gordailuak, inbertsio fondoak, etab.) eratzearen bidez beste libreta batera transferitzen den dirua.

H) "Zerbitzua" zutabea: gastua sailkatzen bada "zerbitzuak emateko gastuak" edo "kudeaketa gastuak" zutabeetan, zerbitzu mota adierazi behar da, "kostuen egozpena" izeneko 3. ataleko jarraibideen arabera.

3.-KOSTUEN EGOZPENA:

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 116ter artikuluan, berritasun bat sartu zuen 2014ko ekitaldirako, toki erakundeek kostuen kontabilitatea eraman beharra barne.

Informazio hori Arabako Foru Aldundira bidaltzeko azken eguna 2023ko azaroaren 1a da. Hala ere, eta kontzejuek lana ez bikoizteko, urteko kontuen zati gisa kostuen kontabilitatearen eredu erraztu bat sartu da.

Urteko kontuak aurkezteko azken eguna lehengo bera da, 2023ko maiatzaren 1a, eta kostuen kontabilitatea ez dago urteko kontuei lotuta.

Zutabeen inguruko argibideak:

A) Zerbitzu kodea: zerbitzuaren kode numerikoa. Zutabe aldaezina.

B) Zerbitzua: bertan jasotzen da kostuak zein zerbitzuri dagozkion, eta ez dute zertan izan kontzejuak ematen dituen guztiak. Kontzeju guztiak ez dituzte zerrendako zerbitzu denak ematen. Zerbitzuren bat ematen ez bada, horren datuak hutsik utzi behar dira. 10. atalean (Bestelakoak), aurretik aipatu ez diren bestelako zerbitzuez gain, kontzejuaren gastu orokorrak jaso behar dira (kontzeju etxea etab.). Zutabe aldaezina. 10. lerro honen gainean ez da kalkulatu unitateko kostua.

1	Kale argiteria
2	Hilerria eta hileta zerbitzuak
3	Bideak garbitzea
4	Edateko uraren etxez etxeko hornikuntza
5	Estolderia
6	Bide publikoen zolaketa
7	Parke publikoa
8	Hondakin uren ebakuazioa eta tratamendua
9	Erabilera publikoko kirol instalazioak
10	Bestelakoak

C) Urteko kontuetako gastua: zerbitzu bakoitzari egotzeko den gastua, kalkulatu gastuen orriko "zerbitzuak emateko gastuak" eta "kudeaketa gastuak" zutabeen batura gisa.

D) Ibilgetuaren amortizazioa: hemen bete behar da, jakinez gero, 1etik 9rako zerbitzuetako elementuen urteko amortizazioa. Gainerakoa 10. atalean jarriko da.

E) Kostua guztira: aurreko bien batura.

F) Neurri unitatea: zerbitzu bakoitzaren kostua zer unitatetan kalkulatu den, izaeraren arabera. Zutabe aldaezina.

G) Neurri unitatea guztira: neurri unitateen zenbakizko adierazpena (guztira zenbat metro kubiko ur, guztira zenbat metro karratu, ...).

H) Unitateko kostua: aterako da urteko kontuetako gastua zati neurri unitatea guztira eragiketa eginda.

Kalkuluak paperean edo euskarri elektronikoan egin daitezke.

1) Euskarri elektronikoan. Kontuak Excelen egitea aukeratzen bada, horrek urteko kontuetan dagoen informazioa era automatikoki jarriko du kalkulu orrian, baldin eta gastuak orriko "zerbitzua" zutabearen kode numerikoa sartzen bada, aipatutako 1etik 10era doazen zenbakiena.

Horrela, Excelekin batu egingo ditu zerbitzu bakoitzaren datuak, gastuen orriko "zerbitzuak emateko gastuak" eta "kudeaketa gastuak" zutabeetan jarriak, eta emaitza kostuen orriko "urteko kontuetako gastua" zutabera eramango du.

Bete behar da, jakinez gero, zerbitzuetako elementuen "ibilgetuaren amortizazioa" zutabea, bai eta zerbitzu bakoitzaren "neurri unitatea guztira" ere, dagokion bezala. Beste zutabeak era automatikoki betetzen dira. Orriak, horrekin guztiarekin, kostuak erakutsiko ditu, kalkulu gehiago egin beharrik gabe.

2) Paperean. Aukera hau eginez gero, gastuak orriko "ZERBITZUA" zutabearen kode numerikoa sartzeaz gain, eskuz egin behar da "ZERBITZUAK EMATEKO GASTUAK" eta "KUDEAKETA GASTUAK" zutabeen batuketara, eta kostuen orriko "URTEKO KONTUETAKO GASTUA" zutabearen jarri.

Gainerako zutabeak bete behar dira "zutabeen inguruko argibideak" ataleko jarraibideak aintzat hartuta.